

ikertzen

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAREN
IKERKUNTZA
GEHIGARRIA


Mondragon
Unibertsitatea

2024KO UDABERRIA
15. ZENBAKIA



Zenbakia BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO

PROYECTO EOLO-HUBS

Reciclaje sostenible de las palas de los aerogeneradores

EL PROYECTO EOLO-HUBS BUSCA ECODISEÑAR LAS PALAS EÓLICAS DEL FUTURO, MIENTRAS SE FOMENTA LA GESTIÓN CIRCULAR Y SOSTENIBLE DE LAS PALAS RESIDUALES DE LOS AEROGENERADORES QUE ESTÁN LLEGANDO AL FINAL DE SU VIDA ÚTIL. EL PROYECTO SUPONE UN GRAN RETO PARA EL GRUPO DE INVESTIGACIÓN DE ECONOMÍA CIRCULAR Y SOSTENIBILIDAD INDUSTRIAL DE LA ESCUELA POLITÉCNICA.

El grupo de investigación de Economía Circular y Sostenibilidad Industrial de la Escuela Politécnica Superior de Mondragón Unibertsitatea es uno de los partners del proyecto Horizon Europe EoLO-HUBs. Se trata de un proyecto financiado por la Unión Europea que comenzó en enero de 2023, y que tendrá una duración total de 4 años. EoLO-HUBs pretende optimizar la gestión de vida de palas residuales desde que se desensamblan del aerogenerador hasta que se reciclan. En este contexto, la solución dará una respuesta integral a tres ejes prioritarios de actuación en lo que respecta al desmantelamiento y reciclaje de las palas eólicas:

- En primer lugar, se busca trabajar en el desarrollo de nuevos procesos y tecnologías de desmantelamiento, corte/seccionado y gestión (ej. transporte) de las palas eólicas residuales. Dada la gran longitud y peso de las palas, se requieren de diferentes tecnologías, equipo y logística para su desmantelamiento y gestión; un proceso complejo y muy costoso que genera impacto ambiental.

- El segundo objetivo consiste en optimizar los sistemas de reciclaje de palas eólicas para maximizar la recuperación de materiales que puedan ser reutilizados en la industria. Para ello, se desarrollarán dos sistemas alternativos de reciclaje: i) pirólisis baja en carbono (reciclaje térmico) y solvolisis verde (reciclaje químico). En este proceso, se están evaluando y testeando estos sistemas considerando diferentes muestras de residuos de palas eólicas con el fin de determinar cuál es la mejor configuración tecnológica de cara a maximizar la eficiencia de recursos y la

EoLO-HUBs es un proyecto financiado por la Unión Europea que comenzó en enero de 2023, y que tendrá una duración total de 4 años.



sostenibilidad ambiental, económica y social.

- Finalmente, el tercer objetivo prioritario consiste en aumentar la calidad de los materiales recuperados para que puedan ser utilizados en las industrias de automoción, construcción y eólica. Para ello, las fibras recuperadas de las palas se someterán a un proceso de mejora (upgrading) para aumentar la longitud y pureza de las fibras y facilitar su uso.

Asimismo, el proyecto también tiene un objetivo transversal que consiste en el desarrollo de un *Knowledge Hub*; una plataforma online donde se recogerán buenas prácticas en la gestión sostenible de palas eólicas, las mejores tecnologías disponibles para ello y un listado de empresas y actores desarrollando diferentes actividades en la cadena de valor

RESPUESTA INTEGRAL

La solución resuelve los ejes prioritarios de actuación para el desmantelamiento y reciclaje de las palas eólicas.



ERREPORTAJEA



(corte, triturado, químicos...) para facilitar un “matching” entre agentes interesados. Adicionalmente, el Knowledge Hub ofrecerá un marco y conjunto de herramientas de economía circular para apoyar la toma de decisiones en el sector; desde el

Este proyecto tiene un presupuesto de 9 millones de euros, y participan 18 socios europeos de 7 países.

ecodiseño de nuevas palas y sistemas de gestión circulares y sostenibles, hasta la definición y configuración de nuevos modelos de negocio y cadenas de valor regionales circulares.

El papel de la Escuela Politécnica Superior

El proyecto EoLO-HUBs está financiado por la Unión Europea en el marco del Programa Horizon Europe con un presupuesto total de 9 millones de euros. Está coordinado por Aitiip y cuenta con la participación de 18 socios europeos de 7 países. Entre todos los agentes implicados en el proyecto, la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea juega un papel trascendental, ya que le corresponde evaluar la circularidad y sostenibilidad de las soluciones tecnológicas desarrolladas, con perspectiva de ciclo de vida de todos los procesos y sistemas. Para ello, el equipo de trabajo analizará

ENERGÍAS RENOVABLES
Este grupo de investigación está inmerso en proyectos que abarcan de forma integral todo el sector de las energías renovables.

los aspectos técnicos, económicos, sociales y ambientales más relevantes de cada solución tecnológica y analizará la circularidad (calculando indicadores concretos) y sostenibilidad (aplicando life cycle sustainability assessment) de las mismas en comparación con los sistemas convencionales. En el primer año de vida del proyecto EoLO-HUBs se han trabajado los enfoques metodológicos y se han empezado a recoger datos de los tres objetivos, incluyendo el desarrollo de estudios preliminares.

Proyectos circulares en otros sectores industriales

Además de EoLO-HUBs, el Grupo de Investigación de Economía Circular y Sostenibilidad Industrial de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea está inmerso en proyectos e iniciativas que abarcan de forma integral todo el sector de las energías renovables, incluyendo la movilidad eléctrica en base al uso de este tipo de fuentes de energía. Entre otros, destacan proyectos como SIC4GRID (ecodiseño de convertidores de potencia utilizados en plantas eólicas y solares), iSTORMY (desarrollo de sistemas híbridos de producción, almacenaje y entrega de energía eléctrica), LIBERTY (ecodiseño de baterías de vehículos eléctricos) o CHARGER+ (ecodiseño de sistemas de carga de vehículos eléctricos). Además, el grupo de investigación trabaja en constante contacto con diversas empresas vascas del sector de la máquina-herramienta para fomentar procesos de remanufactura.

Otra de las principales áreas de acción del Grupo de Investigación de Economía Circular y Sostenibilidad Industrial es la eco-innovación organizacional. Actualmente se encuentran desarrollando un ambicioso proyecto en los distintos campus de Mondragon Unibertsitatea, con el objetivo de convertirlos en más circulares y sostenibles. Para ello, se han puesto en marcha distintas mediciones, además de planes de acción para los campus incluyendo eficiencia energética y material, consumos de energía y materiales renovables, fomento de la movilidad sostenible, y prevención y separación eficiente de residuos, entre otros.



Unibertsitatea Konputazio kuantikoaren ikerketan posizionatzen ari da

DATUEN ANALISIA ETA ZIBERSEGURTASUNA IKERKETA TALDEA 2021EAN HASI ZEN KONPUTAZIO KUANTIKOAREKIN LANEAN. EUSKADIK NAZIOARTEAN POSIZIONAMENDUA HOBETU NAHI ZUEN ETA UNIBERTSITATEA ERRONKARI AURRE EGITEKO PRESTATZEN HASI ZEN.

Konputazio kuantikoak erabat aldatzen du informazioa prozesatzeko modua eta esponentzialki handitzen du konputazio ahalmena eta prozesatze abiadura. Ordenagailu kuantikoen abantaila nagusiak bi dira: (I) kalkuluak azkarrago egitea eta (II) prozesaketak beste modu batera egin ahal izatea. Honek, aukera sorta zabala eskaintzen du etorkizunean ordenagailu hauek eman ahalko dituzten emaitzei dagokienean, gaur egun ezinezkoa dena posible eginez.

Konputazio kuantikoak eraldaketa handi bat ekarriko du baita ere komunikazio zifratuei dagokienean. Izan ere, gaur egun zibererasetan zein ekintza militarretan zifratzen diren mezuak algoritmo kuantikoek azkar batean deszifratuko dituzte.

Unibertsitatearen lan ildoak

Ordenagailu kuantikoek ez dute modu perfektuan lan egiten, oraindik ere akatsak egiten dituzte eta teknologia hobetu beharra dago. Horregatik, lan ildoetako bat IBMko ordenagailu kuantikoen erroreak kuantifikatzen dituen software baten garapenean datza. Hainbat kalkulu egiten dira ordenagailu ez kuantikoetan, eta hauen emaitzak



alderatzen dira ordenagailu kuantikoen emaitzekin, akatsak identifikatuz eta softwarea balidatuz.

Bigarren ikerketa ildoak Machine Learning-arekin dago lerrotuta. Konputazio kuantikoa Machine Learning-a optimizatzeko edo algoritmo berriak sortzeko erabili daiteke, baina baita ere alderantziz, Machine Learning-ak akats kuantikoak ebatzi ditzake. Mondragon Unibertsitatea lehen lerroan ari da lanean.

Lan lerro hau beste agenteekin kolaborazioan garatzen du Mondragon Unibertsitateak, besteak beste, Bizkaiko zein Gipuzkoako Foru Aldundiek dituzten Quantum ikerketa estrategien babesa du. MONDRAGON Korporazioak ere ikerketa kuantikoa sustatzen du eta unibertsitateak hainbat zentzorekin kolaboratzen du.

Gaur egun euskal industriak ez du quantum teknologia erabiltzen, eta aldaketa ez da bapatekoa izango, kasu konkretu batzuetan kalkulu eta konputazio konplexu batzuk modu azkarrago batetan egiteko erabiliko bait da. Hala eta guztiz ere, argi dago epe laburrean zenbait aplikaziotan konputazio kuantikoa klasikoa baino eraginkorragoa izango dela.

BILAKAERA

Datuen analisia eta zibersegurtasuna taldeak bilakaera oso handia egin du konputazio kuantikoaren ikerketan.

Lan lerro honek Bizkaiko zein Gipuzkoako Aldundien Quantum ikerketa estrategien babesa du.

EZATECH: enpresetako langileen ezagutza estrategia eta kudeaketarako tresna teknologikoa landuz

LANGILE BATEK ENPRESA BEREAN HAINBAT POSTU ETA ARDURA IZAN DITZAKE URTEETAN ZEHAR ETA GARAPEN PROFESIONALAREN ARABERA BERE PROFILA ALDATUZ JOANGO DA. NOLA KUDEATZEN DIRA ALDAKETA HORIEN EZAGUTZA BEHARRAK? FORMAZIOA BEHAR DU? NAHIKOA PRESTATU AL DA ARDURA BERRIETARAKO?



Enpresetako langileen ezagutza beharren estrategia eta operatiba hobeto kudeatzeko, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa EZATECH proiektuan parte hartzen dabil, Axular Lizeoa, ISEA, Elkarmedia eta JMA enpresekin. Eusko Jaurlaritzako HAZITEKEN babes ekonomikoa du.

Ikerlariak ezagutzaren markoa definitzen aritu dira. Bizi zikloa 7 fasetan definitu dute eta enpresako langile guztiei eragingo dien prozesua aplikatzeko plataforma teknologikoa sortu da. Moduluka banatuta dago eta aukera ematen du pertsona baten ezagutzaren eboluzioa ezagutzeko, bai departamentu

edo erakunde guztiairena ikusteko ere. Erabilgarria da ere ezagutza ahuleziak zein aukera profesionalak detektatzeko. Axular Lizeoa (hezkuntza) eta JMA (industria) enpresen errealitateetan aplikatu da eta balorazio positiboa jaso du.

Pertsonakerdigunean jartzen duen kudeaketa tresna

Duela urte batzuk Gipuzkoako enpresa industrialetako estrategiari lerrokatutako ezagutzaren hausnarketa gauzatu zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntzarekin. Orain ezagutzaren kudeaketan pertsonak erdigunean ipini eta kudeaketa egokia ahalbidetuko duen tresna bat sortu.

Validación y verificación de automatizados para sistemas industriales



TRES GRUPOS DE INVESTIGACIÓN DE LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR SE HAN IMPLICADO EN CREAR UN ENTORNO HUMANO-ROBOT PARA EL PROCESO DE DESMONTAJE DE FRIGORÍFICOS DE LA EMPRESA ALDAKIN A TRAVÉS DEL PROYECTO VALU3S APOYADO POR LA UNIÓN EUROPEA EN LA CONVOCATORIA ECSEL

Han participado 41 agentes de 10 países, entre ellos Mondragon Unibertsitatea, y ha implicado investigadores del ámbito de la robótica, la IA y el desarrollo de software. Se han trabajado 13 casos prácticos y el equipo de Mondragon Unibertsitatea se ha centrado en la empresa Aldakin. Han creado un entorno de simulación para sustituir un proceso manual de desmontaje de frigorífico por un sistema colaborativo robot-humano. Lo realizan personas con discapacidad y a largo plazo podría generarles molestias musculares.

Los algoritmos entrenados y las simulaciones realizadas proponen un nuevo entorno donde: el frigorífico llega en una cinta transportadora y alinea su posición automáticamente; la persona abre el frigorífico, y el robot mediante la visión artificial identifica la posición de la junta magnética de la puerta y ejecuta la tarea de extracción; mientras, la

persona retira los elementos del interior del frigorífico; la persona cierra el electrodoméstico y la cinta transportadora reanuda su marcha hacia la siguiente estación.

Diez países

Esta herramienta digital permite la monitorización en tiempo real de todos los pasos: permite al robot evitar colisiones con la persona, si detecta posibles colisiones modifica la dirección de la extracción hacia el lado opuesto. También se ha creado un entorno de validación digital para validar y verificar el algoritmo de control antes del despliegue en producción. Basado en reinforcement learning valida el sistema sin que la persona trabajadora corra ningún riesgo.

El proyecto ha llegado a su fin, y los resultados y los *use case* trabajados se han recogido en una plataforma que está ya disponible en la web del proyecto.

Mekanizazioko berrikuntza proiektuak enpresekin

ERRENDIMENDU HANDIKO MEKANIZAZIOKO IKERKETA TALDEAK EPE LUZEKO HARREMANA DU EUSKADIKO ENPRESA INDUSTRIAL TXIKI, ERTAIN ETA HANDIEKIN. ONDORIOZ, ENPRESEK ETENGABE APLIKATZEN DUTE BERRIKUNTZA ETA URTERO TALENTU GAZTEA ESKURATZEN DUTE.

Enpresa industrial txiki eta ertain horiek unibertsitateko ikerketa taldearekin duten erlazioari esker, beste onura batzuk ere eskuratzen dituzte: (1) gazte trebatuak beraien erroka teknologikoetan prestatzea (ingeniaritzako ikasleen programa dualaren bitartez), doktorego tesi industrialak garatzea edo unibertsitateak enpresetako langileentzat antolatzen dituen formakuntza saio teknologikoetan parte hartzea, besteak beste. Gainera, emaitza batzuk jardunaldi eta aldizkarietan argitaratzen dira, eta horrek enpresen jakintza eta posizionamendua indartzen du Estatuan eta nazioartean.

Enpresa unibertsitatetik gertu dagoenean, ikerketa eta transferentzia proiektu txikiak maiz garatzeko bidea irekita dago beti, eta lehiakidetatik nabarmentzea lortzen du enpresak. Ikertzaile horiek sektoreko zaintza teknologikoa egiten dute eta munduan ematen diren joerak identifikatzen dituzte enpresaren berrikuntza norantz bideratu proposatzeko.

Proiektu zehatzak enpresekin: Hauek dira Mekanizazioko ikerketa taldeak enpresekin martxan dituen proiektu batzuk (Eusko Jaurlaritzako HAZITEK deialdiaren babesa dute):

- **DIGIVaCh** Fagor Ederlan, Zubiola, Fagor Automation eta Aratz



Ikerketa eta transferentzia proiektu hauei esker, enpresek posizionamendua irabazten dute.

enpresekin. Automozioa eta moldeen fabrikazioaren sektora bideratuta dago. Mekanizazio zikloetako denborak hobetzea bilatzen du, balio katean esku hartzen duten enpresen artean datuak partekatuz.

- **ROTVI** Geminis enpresarekin. Txirbilaren haustura modu sendoan bermatu nahi du hainbat torneaketa eragiketatarako. Makina erreminta sektoreko enpresa izanik Euskadin hobeto posizionatzeko aukera eskaintzen dio enpresari.
- **EVMACH** Zubiola enpresarekin. Helburua da auto elektrikoaren piezak mekanizatzeko erreminta

ta berriak garatzea (ebaketa erreminten sektorea).

- **OPERA** Ekin enpresarekin. Brotxan sorbatz ertzen akabera hobetzera bideratuta dago, haren dimentsioa kontrolatuz eta akabera prozesuan sortutako bizarrakezabatuz (ebaketa erreminten sektorea).
- **HEGEMA** NECO enpresarekin. Hariztatzeko ardatzen diseinua hobetuko du, ebaketa prozesuaren modelizazioa erabiliz (ebaketa erreminten sektorea).

HARREMAN ESTUA

Errendimendu Handiko Mekanizazioko ikerketa taldeak lankidetzan harreman estua du enpresa mota askorekin.

DIGIVaCh, ROTVI, EVMACH, OPERA eta HEGEMA NECO dira enpresekin elkarlanean lantzen dabilen proiektuetako batzuk.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Sare elektrikoaren kudeaketa egokiago baten bila

MONDRAGON UNIBERTSITATEA RESINET PROIEKTUAN ARI DA LANEAN, SARE ELEKTRIKO MODERNOEN ERRESILIZIENTZIA HOBETZEA DU HELBURU, ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INTEGRAZIOAREN ERRONKA TEKNOLOGIKOEI AURRE EGINEZ.



Mondragon Unibertsitatea, EHU, Tecnalia, Ikerlan, ZIV Automation eta Energia Cluster dira Eusko Jaurlaritzako Elkartek deialdiaren babesa duen Resinet proiektuko partaideak. Helburua sare elektriko modernoaren erresilientzia hobetzea da, energia berriztagarriek dakarten ausazko aldagaiak kontrolatu eta sare elektriko egonkorrago bat bermatzeko. Horretarako, lau erronka nagusitan ari dira lanean:

- Sarearen topologiaren azterketa: gertaera anomaloen aurrean babesteko eta energia fluxuak berbidertzeko soluzioak identifikatzea, beti ere sarearen atalik handienak martxan jarrai dezakeela bermatuz.
- Sarearen modelo digital aurreratuen garapena: sare errealean modelo digital zehatzagoak sortuz, hobeto aztertuko dira gertaera anomaloek izan ditzaketen ondorioak, eta horien aurre

egiteko estrategiak definituko dira.

- Sareko elementuen kontrola: sarean integratzen diren bihurtailuen kontrol mota berriak garatuz, sareari funtzionalitate gehiago eman ahal izango zaio, adibidez tentsio jaitsiera edo maiztasun aldaketen aurrean sistemaren orekan laguntzeko.
- Energiaren kudeaketa: energia sorkuntza, metatze sistemak eta kargen kudeaketa bateratu egokiagoa egiteko gestio energetikoko teknologia berriak garatzea.

Mondragon Unibertsitateko energia eta elektronika taldeko ikertzaileak proiektuko erronka guztietan parte hartzen ari dira. Izan ere, azken bost urtetan sare elektrikoaren inguruko ikerketa aktibitatea indartzeko apustua egin dute eta Euskadiz ein Europako proiektuetan presentzia indartzealortu dute.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Rol de los aditivos en las bombas de calor por absorción



EL GRUPO DE INVESTIGACIÓN DE MECÁNICA DE FLUIDOS DE GOI ESKOLA POLITEKNIKOA DESARROLLA EL PROYECTO TREATED. FINANCIADO POR EL PROGRAMA ESTATAL PARA IMPULSAR LA INVESTIGACIÓN CIENTÍFICO-TÉCNICA, REPRESENTA EL BUEN POSICIONAMIENTO EN LA EXCELENCIA EDUCATIVA E INVESTIGADORA.

El objetivo de TREATED es identificar los factores que permitirán mejorar los mecanismos de transporte para aumentar la eficiencia de las bombas de calor de absorción y revaloricen el calor residual.

Un componente clave de estos equipos es el absorbedor (por su bajo coeficiente de transferencia de calor y masa), y varias investigaciones han determinado que una de las posibles alternativas para solucionar el reto es el empleo de surfactantes y nanopartículas. Concretamente, existe la hipótesis que la convección de Marangoni podría ser un factor fundamental, pero aún no se ha determinado la causa exacta.

El objetivo de TREATED es determinar qué rol desempeñan esos surfactantes y nanopartículas y para ello se siguen tres fases:

- Caracterización del fluido, es decir, qué sucede en las propiedades del fluido cuando introducimos nanopartículas y surfactantes al fluido.

- Identificación del impacto de esos aditivos en el fenómeno de absorción, de forma experimental.

- Desarrollo de modelos que permitan diseñar los absorbedores del futuro que funcionen de forma eficiente.

Las pruebas se están realizando en un banco de ensayos desarrollado por los propios investigadores, basado en técnicas ópticas de interferometría, validando los modelos numéricos.

Colaboración Internacional

Una vez comprendido el rol de los aditivos en tierra, se programa la realización de pruebas en vuelos parabólicos en microgravedad para confirmar la importancia de Marangoni sobre los mecanismos de transporte. Asimismo, se está trabajando con la Agencia Espacial China para la realización de experimentos en la Estación Espacial Tiangong.



“Etorriko diren erronka guztiei ezin diegu aurre egin soilik teknologiatik; ikuspegi etikoagoa ere behar dugu”

FAKULTATE HONETAN IKERLARI ARITZEN DEN PAULA ALVAREZEK IZAN DITU BESTE ‘BITZTA’ BATZUK AURRETIK. OVIEDON JAIOA, INGENIARITZA KIMIKOA IKASI ZUEN ETA UR BALIABIDEekin LOTUTA, INGURUMENAREN ALORREAN LAN EGIN ZUEN INGLATERRAN ZEIN ESPAINIAN. GERORA, BAINA, AMA IZATEAREKIN BAT LAN HURA UZTEA ERABAKI ZUEN ETA HEZKUNTZARI BURUZ ZITUEN GALDEREI ERANTZUN BILA ESPARRU HONETAN MURGILTZEN HASI ZEN, HEZKUNTZAREN IKERKETARA HELDU ARTE. BIDEAN, GAINERA, EUSKARA IKASI ZUEN ETA ZENTZU ASKOTAN MUNDU BERRI BATZUK ZABALDU ZAIZKIO.

Zergatik aukeratu zenuen Ingenieritza kimikoa ikastea? Ez nuen oso argi zer ikasi, baina Matematika eta Fisika gustatzen zaizkit eta ingurumenarekin lotutako adar bat izateak eragin zidan. Horrez gain, kezkatzen ninduen emakume gutxi ingeniari-tza egitea, eta pentsatu nuen nire alea jartzea. Oviedon metodologia oso tradizionala da, baina handik Ingalaterrako SOAS unibertsitatera jo nuen Environmental management ikastera, eta horri esker bestelako metodologia eta bizitza ikuspegiak ezagutu nituen. Ondoren, urteak pasatu nituen Ingalaterran, Madrilen eta Oviedon alor horietan lanean.

Eta, halako batean, hezkuntzan jarri zenuen jomuga... Bai. Amaizan nintzen eta umeekin egon nahi nuen. Hala, lana utzi eta umeek hezkuntza hobeago bat izateko hausnarketan hasi nintzen; konturatu nintzen bizilekuaren arabera hezkuntza sistema desberdina izango zutela, eta horrek eragin izugarria duela. Askok irakurri nuen hezkuntza sistemek gudan

duen eraginari buruz. Eta erabaki nuen, gehiago jakiteko, irakasle trebatzea. Batez ere jakinmina zen, baina izan zitekeen etorkizuneko lanbidea.

Valentziangeldiune birtual bat egin ostean, Mondragon Unibertsitatearekin egin zenuen topo... Bai, masterra egin nuen distantziara jakinminak bultzatuta. Eta, ondoren, MBL egiteko aukera izan nuen Mondragon Unibertsitatean Maite Garcia-rekin. Oso esperientzia ona izan zen eta argi bat piztu zen nire barrenean: “Hau da egin nahi dudana”. Oso eskertuta nago Mondragon Unibertsitatearekin, nirea oso profil desberdina izanda ere -ingenieritza-tik, Asturiasetik eta euskaraz ez nekiena- aukera ezin hobea eman zidalako.

Eredu kooperatiboak harritu zintuen... Interesgarria iruditzen zitzaidan, baina ez neukan antzeko erreferenterik.

Oso interesgarria da, oso eredu

positiboa, eta nabarmentzekoa da hemen lantokietan, enpresetan... jendeak daukan inplikazioa. Enpresa arruntetan ez dago halakorik. Edozein gauza txiki eztabaidatzen da, langileek hartzen dute lana proiektu personal gisa.. Hemen beste begirada bat dago, eta horrek gero eragina dauka herrietan. Adibidez Ingalaterran desberdintasun ekonomiko handiak daude eta hemen ez. Eta nik lotzen dut hori eredu kooperatiboarekin, baina baita kulturarekin ere: hemen jendeak lankidetzarako beste joera bat du. Eta gauza txikiekin ere ikusten da: umeen ospakizun askariak nola antolatzen diren, esaterako. Ez dakit eredu hau beste leku batean erreplikatzeko aukera dagoen edo zuzenean lotuta dagoen hemengo kulturara.

Migrazioaren gaigarrantzitsua da zuretzat. Asturiasetik, jende askok jo zuen kanpora? Bai, jende askok. Nire birraitona AEBetara joan zen, amona Kuban izan zen, izebak ditut Uruguaiaren, orain New Yorken... Gai



EUSKARA
Euskara ikasteak mundu berri baten atea zabaldu dizkiola aitortzen du Oviedon jaiotako ikerlariak; lagunak egiteko, integratzeko, hemen lana egiteko, seme-alaben hizkuntza ezagutzeko...





ERREPORTAJEA



Euskarak mundu berri baterako atea zabaldu dizkit. Lagunak egiteko, hemen lan egiteko, herrian integratzeko, nire seme-alaben hizkuntza ulertzeko. Gauza asko.

Unibertsitateko ikasleen berrikuntzarako joera ikertzen aritu zara... Bai, tesian identitatea sormenari eta pentsamendu kritikoari dagokionez ikertu dut. Interesatzen zait nola joaten garen gure identitate hori garatzen, eta ze katalizadore egoten diren identitate hori sortzeko. Autonomia handia izan nuen. Adibidez, aukera izan nuen genero ikuspegia txertatzeko. Iñaki Larrea eta Alex Muela irakasleen babes handia izan da.

Berrikuntzaren garapenerako funtsezkoak dira zure ustetan autoeraginkortasun sortzailea, autoeraginkortasun ekintzailea eta pertseberantzia. Mundua erakitzen dugu gure pertzepzioen arabera. Sormena baino interesatzen zait gure identitate sortzailea, zenbateraino uste dugun gai garela zeregin sortzaileak egiteko eta zenbateraino ez. Lotuta dago sormen garapenarekin. Batzutan pentsatzen dugu horrela jaio garela, sortzaile izanda edo ez, baina pentsatzen baduzu hori garatu dezakezula beste bide bat zabalduko duzu. Eta horrek hezkuntzan garrantzia handia dauka.

horrek interes handia dauka niretzat: zer gertatzen den prozesu horietan, zer nolako integrazioa ematen den, seme-alaba horien esperientziak... Hori nola landu, enpatia hori nola garatu... Gai hori txikitatik izan da nire interesekoa, agian oso hurbil izan dudalako.

Eta, hara!, noiz hasi zinen euskara ikasten? Doktorego tesia hemen ikasten hasi nintzenean, 2018an, euskaltegian, Zarautzen, izena eman nuen. Herrian oso giro euskaldunean ibiltzen naiz, lanean giroa erabat euskalduna da... Hortaz, zorte handia izan dut euskara lantzeko eta saiatu naiz aukera hori aprobetxatzen.

Zer izan da zailena euskara ikasterakoan? Pixkanaka joan naiz: lehenengo ulermena lantzen ibili nintzen baina ez nintzen hitz egitera ausartzen, gero hasi nintzen gauza batzuk esaten... Oraindik badaukat zer ikasi eta zer hobetu, baina nik uste

nuen zailagoa zela. Nik hasieran faltan botatzen nituen erreferentziak: kanpoko beste norbaitek ikasi duela ikustea... Izan ere, hasieran jasotzen duzun mezua da oso zaila dela eta horrek ez du laguntzen animatzeko. Baina, oso irakasle onak izan ditut eta horrek asko lagundu dit.


Tesian identitatea sormenari eta pentsamendu kritikoari dagokionez ikertu dut. Interesatzen zait nola joaten garen gure identitate hori garatzen.

ONDORIOA
Alvarezek parte hartu duen Ikerketaren ondorio garrantzitsuenak da aniztasunari esker ikasleen sormena eta pentsamendu kritikoa garatzen dela.

Zein ondorio nagusi atera dituzu? Batez ere aniztasunaren garrantzia. Aniztasuna ulertuta ideia, pertsona eta testuinguru desberdinen topagune bat bezala. Ikerketan ikusi dugu aniztasun horri esker ikasleen sormena eta pentsamendu kritikoa garatzen dela.

Teknikoetan beste ikasgaietan baino berrikuntza handiagoa dago? Badago gizartean joera bat ikasketa tekniko horiek aurrean jartzeko, baina niri iruditzen zait oreka bat egon behar dela, ditugun erronkak gero eta konplexuagoak izango direlako, eta horretarako diziplinartekotasuna beharko dugu; dena baita garrantzitsu Ezin diegu aurre egin erronka horiei guztiei bakarrik teknologiatik; bestelako ikuspegi bat landu beharko da, etikoagoa, ezinbestez. Horregatik, emakume gehiago behar ditugu teknologian; eta, agian, gizon gehiago zaintzan.





Kooperatiba eredua nazioartean hedatuz

OIER IMAZ, FRED FREUNDLICH ETA ARITZ KANPANDEGIK MONDRAGONEKO KOOPERATIBETAN EGINDAKO IKERKETA BATEN BERRI EMAN DUTE "HUMANISTIC GOVERNANCE IN DEMOCRATIC ORGANIZATIONS" LIBURUAN.

The Governance of Multistakeholder Cooperatives in Mondragon: The Evolving Relationship among Purpose, Structure, and Process. Horrela deitzen da Oier Imaz, Fred Freundlich eta Aritz Kanpandegi LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko ikerlariek landutako kapitulua.

Kanadako Saint Mary's University-ko *International Centre for Co-operative Management*-eko Sonja Novkovic, Karen Miner eta Cian McMahon editoreek luzatutako eskakizunean datza artikulua oinarria.

Bertan kooperatibek lantokiaren egunerokoan nola xertatzen duten ikuspegi humanista jaso nahi izan da, enpresaren kudeaketaren gaineko kezka mahai gainean jarri. Kooperatibak negozioaren balio katearekin soilik lotzen ez diren erakundeak izanik, hauetan gobernanzaren auzia nolako den aztertu da artikuluan, bereziki MONDRAGONEKO kooperatibetan. Interesa piztu du argitalpen berri honek.

Gobernantza eredu bereizgarri bat

MONDRAGONEKO kooperatibetan gobernanzarako existitzen diren tresna bereizgarriak eta bestelako aktoreen integrazioa aztertzen ditu kapitulu honek. Orotara, Mondragonen ekosistema osatzen duten 83 kooperatibetatik 21etan aktore ezberdinak daudela azaleratu du egindako ikerketak, Banaketa, Ezagutza eta Finantza arloan banaturik. Datu honetatik abiaturik, kapitulua bereziki bi arlotan zentratzen da: identifikazioa eta oinarrizko deskribapena, eta kooperatiben dimentsio humanista. Identifikazioari dagokionez 21 kooperatiba hauen deskribapena egin da, kooperatibetan zabalduak galdetegi baten bitartez jasotako informaziotik abiatuta. Ondoren, kooperatibaren dimentsio humanistan sakondu da, bertako bazkideekin izandako elkarrizketa sakonak erabiliz beraien esperientzian murgildu ahal izateko.

Análisis del pasado y el presente de la renovación pedagógica

INVESTIGADORES DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA Y DE OTRAS UNIVERSIDADES DEL ESTADO, COORDINADAS POR LAS UNIVERSIDADES DE PAÍSES CATALANES, HAN ANALIZADO LA RENOVACIÓN PEDAGÓGICA EN EL PASADO Y EN LA ACTUALIDAD.

El Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades ha financiado el proyecto 'La Renovación Pedagógica en la España actual: Estudios de caso, desde una visión crítica, en centros de educación infantil, primaria y secundaria de siete comunidades autónomas (RENPRISEC)'. Xabier Arregi, investigador de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea, está inmerso en el proyecto desde su inicio, en 2020. "Existe una percepción generalizada de que el debate sobre la renovación pedagógica de tiempos de los 70 y 80 se ha diluido en gran manera. Y también se tiende a simplificar la renovación pedagógica como una innovación tecnológica, obviando el debate fundamental sobre la función de la educación, en general, y de la escuela, en particular", afirma Arregi.

Referentes actuales

El equipo de investigación interdisciplinar en el que participa, ha analizado la evolución histórica de los movimientos de renovación pedagógica en diferentes Comunidades Autónomas del Estado. Posteriormente han buscado referentes de movimientos de renovación pedagógica en cada territorio. Arregi se ha centrado en la experiencia de Arizmendi Ikastola. Para ello, además de documentarse y realizar contrastes, se ha reunido con representantes de todo el colectivo.

Arregi estima indispensable impulsar en los centros educativos procesos de renovación pedagógica que se caractericen por ser compartidos y sostenibles en el tiempo, y contemplen elementos que favorezcan procesos participativos con una orientación clara hacia la transformación y la justicia social.



HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Dibertsitatean elkarbizitza onenerako gakoak

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIA FAKULTATEAN GENERO GAIK ETA GIZARTE ERALDAKETA IKERTZEN DIUTUZE. MARTA QUINTASEK, ESATERAKO, KULTURARTEKOTASUNAREN ADAR BAT LANDU DU 2023KO UZTAILEAN DEFENDATUTAKO TESIAN.

Amelia Barquinekin batera, tesian jasotako datu ugariak aztertzen dihardute. Abiapuntua da dibertsitate soziala duten ikastetxeetan familien eta irakasleen pertzepzioa jasotzea: gurasoek eta irakasleek nola antzematen duten hezkuntza-inplikazioa etxeko ikastegi-eremuan, guraso-irakasle harremanak eta eskolan duten partehartzea.

Quintasek tesia egiterakoan aukeratu ditu eraginkortasun handiko eta aniztasuna duten ikastetxe bi: emaitza akademiko altuak lortzen dituzten eskola bi; eta,aldi berean aniztasun soziala jasotzen dutenak. Ikertu beharreko eskolek honakoak bete behar zituzten: eraginkortasun akademiko handia, %20 indize sozio-ekonomiko maila baxukoa izatea eta familietatik %10 jatorri atzerritarrekoak izatea.

Quintasek erantzun nahi izan duen galdera da familiekin zer estrategia lantzen dituzten Gipuzkoako bi eskola horietan. Ondorioen artean nabarmena da eskola eta familiez gain, komunitate mailan ere strategiak lantzen direla: gizarte zerbitzu eta kanpoko erakundeekin elkarlana, gurasoekin informazioa modu egokian partekatu, hezkuntza oztopo izanda etxekolanetarako guraso batzuek laguntzea, guraso elkartean jatorri atzerritarra dutenei erabakiak hartzea erraztea...



Kulturartekotasunetik asko daukagula ikasteko azpimarratzen dute bi ikerlariek.

Adi proiektua

Barquin eta Quintas beste hainbat proiektutan ere badabilta. Esaterako, dibertsitate sozialak duten ikastetxeetan familien pertzepzioak jasotzeko Adi proiektuan. Iker-

keta horretan aztertu dute hezkuntza testuinguruan familiek nola antzematen duten beraien arteko harremana, eskolaren aniztasuna bera edo haien parte-hartzea esparru horretan, zein oztopo dituzten; eta, hala, zein estrategia landu daitezkeen familia horien inplikazioa handitzeko bai eskolan eta baita etxean ere.

Euskara eta kulturartekotasuna

Barquin, Karmele Perezekin batera, murgilduta dago, baita ere, 'Euskara eta kulturartekotasuna' proiektuan. UEMArekin batera, 18 ikastetxetan (Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian) strategiak lantzen dabilta atzerriko familien etorrera duten hezkuntza testuingurutan euskarak ardatz izaten jarraitu dezan eta, era berean, euskaraz ez dakiten familien partehartzea bermatzeko.

EMAITZAK

Marta Quintas dabil (eskuman) egin duen tesiaren emaitza askotarikoak aztertzen, Amelia Barquinekin (ezkerrean) batera.

Equipo SyNC: sostenibilidad y negocios circulares

EL EQUIPO DE INVESTIGACIÓN DE SOSTENIBILIDAD Y NEGOCIOS CIRCULARES (SYNC) TIENE COMO MISIÓN "CONTRIBUIR A LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA DEL TERRITORIO MEDIANTE PROYECTOS COLABORATIVOS I+D+I QUE IMPULSEN LA TRIPLE SOSTENIBILIDAD (ECONÓMICA/SOCIAL/AMBIENTAL) DEL TEJIDO EMPRESARIAL".

Su principal objetivo es diseñar y desarrollar iniciativas de alto impacto ambiental en el territorio, cadenas de valor y modelos de negocio, aportando sus capacidades en torno al desarrollo de proyectos de investigación, innovación e impulso de redes de colaboración.

